

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko urtarrilaren 25a. IX. urtea. 2.471. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Jausoro, Elser, Irazabalbeitia, Zelaia eta Igartua, atzo, Tolosako udaletxean egin zuten aurkezpeneari. I. URKIZU

Behin betiko irtenbidea bilatu bitartean Gaztelura doan errepidea berriz ireki dute

Konponketa sakona beharko du Leaburu eta Gaztelu arteko errepideak; atzo, Gazteluko Udalak batzar irekia egin zuen argibideak emateko 04

Espainiako Gobernuaren murrizketen aurka protesta egin du Tolosako Udaleko LABek

Beste sindikatuekin batera «euskal sektore publiko sendoa» eraikitzea helburu duen alternatiba adosteko asmoa azaldu dute mobilizazioarekin 05

Euskara ikasteko aukera izango dute adinekoen zaintzaileek

Banaiz Bagara elkarteak, 'Ikasmina: herriz herri' egitasmoak, Emun kooperatibak eta Tolosako Udalak antolatu dute ekimena

Plaza mugatuak izango ditu emango duten doako ikastaroak, eta zaintzaileek zein adinekoek parte hartu ahal izango dute 02-3

Inauteriak badatozela iragarritz, gibela dastatuko dute bihar lizartzarrek

Antzerkia, musika eta dantza izango dira bihar eguerdian; hurrengo asteburuan izango dute jarraipena inauteriek; Lizartzako Ihaute dantzen sustatzaile izandako Iñaki Zubeldiari omenaldia egingo diote 07

Pello Odriozolaren egoera izango dute gogoan gaurko elkarretaratzeetan

Herrira ekimenak deituta, hileko azken ostiraleko mobilizazioak egingo dituzte 05

Konfiantzan, Ikastola

| | | | |
|---|---|---|---|
|  | Anoitako Herri Ikastola 943 65 29 32 www.anoitakoherrriikastola.net |  | Laskorain Ikastola (Tolosa) 943 69 71 22 www.laskorainikastola.net |
|  | Irurako Ikastola 943 69 43 74 www.irurakoikastola.net |  | Tolosako Inmakulada Ikastetxea 943 67 36 29 www.inmakuladatolosa.com |
|  | Jesusen Bihotza Ikastola (Vilabona/Zizurkil) 943 69 23 21 www.jesusenbihotzaikastola.com |  | Uzturpe Ikastola (Obarra) 943 67 12 99 www.uzturpe.net |



TOLOSALDEKO IKASTOLAK

Irudia >



MURRIZKETEN AURKA

Espainiako Gobernuak sektore publikoko langileei aplikatutako murrizketen aurka, elkarretaratzea egin zuten, atzo, Tolosako Udaleko LAB sindikatuko kideek, *Espainiaren inposizioen aurrean, bertako instituzioek hitza eta erabakia!* lelopean. Besteak beste, gainontzeko sindikatuekin batera «euskal sektore publiko sendoa eraikitzea helburu duen alternatiba bat adosteko» asmoa azaldu zuten. ITZEA URKIZU

Irudia >



BILDARRATZ SENATARI

Jokin Bildarratz tolosarra EAJren senatari aukeratu zuen atzo, ofizialki, Eusko Legebiltzarrak. Legealdian ganberan egindako lehen osoko bilkura izan zen atzo goizekoa, eta EAJren babesak jaso zuen Bildarratzek. Berarekin batera, EH Bilduko Iñaki Goioaga hautatu zuten, EH Bilduren babesarekin, eta PSE-EEko Tontxu Rodriguez, PSE-EE eta EAJko hiru legebiltzarkideren babesarekin. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Oihana Jausoro, Petra Elser, Inaki Irazabalbeitia, Gemma Zelaia eta Gorka Igartua, aurkezpenean. I. URKIZU

Adineko pertsonen zaintzaileek euskaraz ikasteko egitasmoa martxan

Tolosako Udalak diruz lagundutako proiektua da, eta plaza kopurua mugatu egingo dute doako ikastaroan

Itzea Urkizu

Adineko pertsonak zaintzea ogibide duten langileei begira, euskara ikastaroa antolatu dute Tolosako Udalak. Banaiz Bagara elkarteak, *Ikasmina: herriz herri* egitasmoak eta Emun kooperatibak.

Inaki Irazabalbeitia zinegotziak, «hizkuntza politikan beste urrats bat ematea» dela azaldu du: «Iaz ostalaritzako langileekin egin genuen gisa berean, aurtun adinekoen zaintzaileei begira jarzteaz pentsatu dugu». Agerraldian, berarekin batera, Petra Elser, Oihana Jausoro, Gemma Zelaia eta Gorka Igartua ere izan dira.

Izan ere, Banaiz Bagarako Petra Elser-ek nabarmendu duenez, «adineko pertsonak beren ohiko

hizkuntza erabili ahal izatea ere, bizi kalitaterako faktore bat da, elikadura, garbitasuna nahiz beste edozein premia bezala».

Bide honetan, «hizkuntza normalizazioaren beharretako bat» dela nabarmendu du Irazabalbeitiak: «Zaintzaile gehienak atzerri-tarrak dira, eta Tolosaldea, aldez, adineko gehienak euskaraz hobeto moldatzen dira; are gehiago, gazteleraz trakets aritzen direnak ere asko dira».

Komunikazioa irakasgai

Arazo hauei aurre egiteko helburuz, eta *Ikasmina: herriz herri* egitasmoaren barneko jarduera gisa, udaleko arduradunak Banaiz Bagara elkartearekin harremanetan jarri dira.

Euskara ikastaro hau ez da ohiko ikastaroa izango, zaintzaileez gain, adineko pertsonak eurek ere joan ahal izango baitute eskoletara: «Modu honetara, biek parte hartu ahal izango dute, bien arteko komunikazioa landuz. Beldurra edo lotsa gainditzea errazagoa izango da zaintzaileentzat, ez baita nahikoa hitz batzuk

ikastea», azaldu du Petra Elser-ek.

Datorren otsailaren 25ean hasiko dira saioak, baina izen ematea zabaldu dute jada. Interesa dutenek, Tolosaldea GLHBira dei dezakete batetik, 943 65 11 47 zenbakian; Banaiz Bagara elkartearen ere eman daiteke izena, ordea, 943 33 14 55 edo 645 733 818 zenbakietan.

Eskolak 10:00etatik 12:00etara izango dira, astean bi aldiz, eta oraindik zehazteke dagoen arren, Tolosako erdigunean eskainiko dituzte saioak. Udalaren diru la-

Zaintzaileek adinekoekin batera joan ahal izango dute eskoletara

guntza medio, doako ikastaroa izango da sektoreko langile partikularrentzat, langabetuentzat, etxetzeko enpresetako langileentzat nahiz zaharren egoitzetako langileentzat. Hala ere, plaza kopurua mugatuko dute.

Bizipenak elkartrukatea

Testuinguru berean bizipenak elkartrukatzeko, mahai ingurua antolatu dute, otsailaren 19an: *Hizkuntzaren garrantzia adineko pertsonen zaintzan*.

19:30ean hasiko da, kultur etxean, eta Maite Artola moderatzaile lanetan ariko da, honako hizlari-ekin: Xabier Mendiguren, Garbiñe Petriati, Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuetako ordezkarria eta adineko pertsonen zaintzan esperimentzia duen Matia Fundazioko ordezkarria.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI EDO ALOKAGAI

Haur-kotxea. Bikientzako kotxe-kapota eta silitak saltzen ditut. Oso egoera onean daude eta prezio interesgarrian eskaintzen ditut. Interesatuak, deitu 605 831023 telefono zenbakira.

Ileapaindegia. Villabonan, ileapaindegia saldu edo alokatuko

nuke. Interesatuak deitu 630 09 90 92 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

Estetizista. Tolosarako estetizista bat behar da. Esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak, deitu 943 65 58 37 edo 625 70 50 62 telefono zenbakietara.

Ikasmina sustatzeko bisitak egiten dituzte, herriz herri

Altzo, Amasa-Villabona, Amezketan, Anoeta, Asteasu eta Tolosako Bidaion izan dira orain arte

Rebeka Calvo

Ikasmina: herriz herri ekimeneko helburu nagusia Tolosaldeko herritarren artean ikasteko arra sortzea da proiektuko gidariaren, Gemma Zelaia, hitzetan, eta Alberto Coto matematikariak eman zion hasiera pasa den abenduan. 460 ikasle izan zuten Cotorren azalpenak entzuteko aukera, eta «hasiera ezin hobea» izan zutela dio Zelaia.

Herriz herriko bisitak urtarriaren 16an hasi zituzten eta martxoan bukatuko dituzte. Tolosaldeko 28 herritan izango da Gemma Zelaia, eta Tolosan, herrigunean eta Bidaion ere izango dira, beraz, 29 informazio gune jarriko ditu.

Ikasteko interesa sortu nahian Zelaia azaldu duenez, proiektuaren helburu nagusia jendea inguruan trebatzen jarraitzeko dituen aukeren inguruko informazio eta aholkularitza ematea da; «ikasteko interesa sortu nahi dugu», esan du.

Bestalde, ekimeneko sustatzaileek Tolosaldeko herritarren interesak, beharrik eta zein prestakuntza jaso nahi duten jakin nahi dute. «Azken finean, aholkularitza zerbitzu ibiltari bat eskaintzen dugu», gaineratu du.

Orain arte, sei herritan egon da Zelaia; Altzo, Amasa-Villabona, Amezketan, Anoeta, Asteasu eta atzo, Bidaion. Baliarrainera asteazkenean joan behar zen, baina azken orduko arazo bat medio ez zen egon. «Oso gustura nago orain izandako harrerarekin, kontsulta asko egin dituzte. Edozein herritar gerturatu ahal da gunera eta alde zuretik hitzordua hartzen badute hobeto, guztia antolatze-ko», esan du.



Gemma Zelaia taldeka eskaintzen dituen bileretako bat. HITZA

Izan dituen eskaeren inguruan galdetuta, ekimeneko gidariak batzuk oso eskaera zehatzak egiten dituztela esan du, «beste batzuk berriz, aztertu egin behar dituzte ikastetxean. Batzuetan erantzuna momentukoa da, azkarra, eta beste batzuetan, denbora gehiago behar dut, baina guztiek jasotzen dute erantzuna», gaineratu du.

Banakako kontsultez gain, taldeka ere zerbitzua jaso daitekeela gogora ekarri du, «Amezketan esaterako Guraso Eskolak egin zuten hori».

Zelaia, hala ere, zerbitzua herriz herriko bisitak baino harago doala gogora ekarri nahi du. «Bisita egitearekin batera hitzordua

egin eta gero, totem batzuk uzten dituzte herrietan eta bertan webgune QR kodeak ere jartzen du, jendearekin harremana sustatzen jarraitzeko. QR kodeak gure webgune aramaten du eta bertan informazio guztia dago. Postontzi bat ere uzten dut jendearen eskaera, behar eta iradokizunak jaso ahal izateko». «Tolosaldeko Zerbitzu honekin herri guztietara iristen gara, baina aldi berean, argi utzi nahi dugu Tolosan gaudela, ikastetxe batean, eta hemen ere eskura gaudela beste edozein momentutan informazioa eman eta laguntzeko», gaineratu du.

Diagnostiko bat egitea

Tolosaldeko biztanleen artean ikasteko grina sortzeaz gain, proiektu honen helburua ere bada bira guztia bukatzerakoan eskualdeko diagnostiko bat egin ahal izatea. Horretarako, galdeketa batzuk prestatu dituzte, eta informazio bila joaten diren pertsonen egiteko eskatzen diete. Hala ere, webgunean ere badaude 'Parte Hartu' atalean, edozeinen eskura. «Inketa bat da, jendea zergatik ikasten duen eta abar galdetzeko eta diagnostikoa egiteko», zehaztu du.

Ikasmina: herriz herri Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa institutuak bultzatu du eta finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko sai-

Ibartarrek TAO txartelak jasotzeko azken aukera bat dute

Baimenak zuzenean jasotzeko azken eguna astelehena izango da; 08:00etatik 13:30era joan behar da udaletxera

R. C. Ibarra

Ibarrako Udalak jakinarazi duenez, TAO txartelak zuzenean jasotzeko epea bukatu da jada, baina datorren astelehenean, urtarrilak 28, beste aukera bat emango dute. Aparkatzeko baimena jaso nahi dutenek 08:00etatik 13:30era udaletxera joan behar dira.

Astelehenean joaten ez direnek eta TAO txartela eskuratu nahi dutenek udal bulegoetan eskatu behar dute ohiko ordutegian, eta astebeteko epean jaso ahal izango dute.

Bestalde, udalak jakinarazi duenez, herrian lan egiten dutenek urteko TAO txartela ateratzeko tasa bereziak izango dituzte, beharpena izango dutelarik.

Txartelak urte guztian autoa Zubizarretako aparkalekuan uzteko aukera emango du. Txartela ateratzeko ohiko orria bete behar da, tasa ordaindu eta lan hitzarmena edo agiri baliokidea aurkeztu.

Bukatzeko, udalak iaz txartela atera zutenei eta oraindik berritu nahi dutenei hau indargabeturik dagoela gogora ekarri nahi die, eta ondorioz, autoa uzteko TAO eremuan ohio txartela atera behar dutela.

Argibide gehiago eskuratzeko 699 936 773 telefono zenbakira deitu behar da.

Saharari elkartasuna adierazteko aukera Ibarra, Berastegi eta Villabonan

Jakiak, norbanakoen garbiketarako produktuak eta eskola materiala bildu nahi dituzte

R. C.

Tolosa, Abaltzisketa eta Alegiak egin bezala, Ibarra, Berastegi eta Villabonan ere hasi dituzte Saharara elikagaiak bidali ahal izateko biltze kanpainak. Hiru motatakoak dira utzi daitezkeen produktuak: denbora luzean irauten duten jakiak, norbanakoen garbiketarako produktuak eta eskola materiala.

Jakie dagokienez, lekaleak, hegaluza eta sardinak olioetan,

arroza, azukrea, pasta edota olioak utzi daitezke. Eta norberaren garbiketarako konpresak eta helduentzako pixoihalak jasotzen dituzte.

Villabonan urtarrilaren 30a arte jasoko dituzte udaleko Ongizate sailean (2. solairua) astelehenean ostirala, 08:00etatik 14:00etara.

Ibarran urtarrilaren 31a arte luzatu dute epea eta jakiak udal txantxan utzi daitezke 09:00etatik 14:00etara edo kultur etxean 10:00etatik 13:00etara, eta 15:30etik 21:00etara, astelehenean ostirala.

Berastegin, aldiz, azken eguna urtarrilaren 27a izango da eta eskolan, Bideaurren, Denda-Berrin edo Gaztañondon utzi daitezke produktuak.

↓ Fitxa

■ Webgunea.

www.ikasmina.tolosaldea.com.



■ Hitzordua hartzeko moduak.

ikasekin@tolosaldea.com helbidera idatzita, edo Gemma Zelaia (615 775 678) edota Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa institutura deituta (943 6511 47).

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Menu berezia
Mirador de Ulia jatetxean

MIRADOR DE ULIA
Ulia jatetxea, 19
2003 Donostia (GIPUZKOA)
Tel. 943 27 27 87
www.miradorulia.com

Prezioa 30€

www.mauka.eu **berria**



Gaztelura doan bidea berriro zabaldu dute

A. Imaz Gaztelu

Leaburutik Gaztelura doan bidea, GI-3881a, asteazken goizaldean zabaldu zuten berriro ere, 03:00etan. Larunbat gauean, lurra mugitu eta errepidea bitan zatituta gelditu zen, erdian zulo handi bat zuela. Konponketa lanak egiten ari ziren bitartean, Lizartzatik Gaztelura doan bidetik barena ibili ziren gazteluarrak.

Hala eta guztiz ere, behin behinoko moldaketak egin dituzte. Aurrrera begira, konponketa sakon bat egin beharko dela azaldu dute Gazteluko Udaletik. Horren inguruko argibideak emateko, hain juxtu, batzar irekia egin zuten atzo iluntzean udaletxean.

Bestalde, Ibarrik Leaburura bidea ere zabalik dago, errepide ertzeari harri lubeta eta hormigozko areka egin ondoren.



Gazteluko bidea, Mahala parean, berriro zabalik dago. A. IMAZ



Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsuak, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

TOLOSako EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

www.samane.io
www.munduzabalerako.zubia.net
www.derrigorrazko.bigarren.hezkuntza.net
www.zig-lanbide.tailerra.net
www.batsalbergok.com

Mundu Zabalera

- Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza
- ZIG - Lanbide Tailerra
- Batsalbergok

euskaraz bizi nahi dugu
Matrikula epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Sorturen hirugarren batzarrean antolakuntza eredua erabakiko dute

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan bihar, hilaren 26an, egingo dute batzarra

Asier Imaz

Sorturen eratze prozesua aurrera doa. Batzarrez batzar, ezker abertzalearen alderdi berriaren oinarriak finkatzen ari dira sortzaileak. Hirugarren batzarra, antolaketa eta funtzionamenduari dagokiona, asteburu honetan egingo dute. Bilerak eskualdeko hainbat herritan egingo dira, eta dena prest utzi nahi dute otsailaren 7rako, hau da, barne hauteskunde egunerako. Eratze prozesuari amaiera emateko, otsailaren 23an, kongresua egingo dute.

Aurrez, batzarren fasea amaitu behar da, eta eskualdeko herri gehienetan hirugarrena larunbat egingo dute. Altzoren kasuan, igandean izango da bilera hori, eta Gaztelun, astelehenean egingo dute.



Sortu alderdiaren eratze prozesuaren lehen batzarra, Ibarrian. HITZA

Batzararen dinamika orain artekoa izango dela azaldu dute Sortutik, hau da, «parte hartzea bultzatzen duena». Bertara agertzen direnek, txostenari hobe-kuntzak eta ekarpenak egiteko aukera izango dutela azaldu dute eratze prozesuaren dinamizatzaileek: «Horretarako, lehen liburuko bigarren atala irakurtzea komenigarria izango da, hain juxtu, hirugarren batzar honetan hori eztabaidatuko baita».

Leitzan batzarra ihoteen baruan izango da, bihar. Arrazoi horregatik, herritarrei ahalegin berezia eskatu diete Sortuko ki-deek: «Goizean, auzolanean, proiektuari forma emango diogu, hamaiketako eta guzti. Arratsaldetik aurrera, berriz, denok ingi pasatzera!».

↓ Hitzorduek

URTARRILAK 26, BIHAR

- **Anoeta.** Mikelasagasti auditorioan, 09:30ean.
- **Amasa-Villabona.** Kultur etxean, 09:00etan.
- **Ibarra.** Kultur etxean, 09:00etan.
- **Leitza.** Erleta eskolan, 10:00etan.
- **Tolosa.** Kultur etxean, 09:30ean.
- **Zizurkil.** Iriarte kultur etxean, 10:30ean.

URTARRILAK 27, ETZI

- **Altzo.** Balioanitzeko gelan, 10:00etan.

URTARRILAK 28, ASTELEHENA

- **Gaztelu.** Eskolan, 19:00etan.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^o OTAÑO HERRI ESKOLA

Paganurto auzoa, 16 - ZIZURKIL
Tel.: 943 691 478
P.E.: 012041aa@hezkuntza.net
www.pedromariaolaolnhi.hezkuntza.net

Aurrematrikulazioa:
Urtarrilak 30etik Otsailak 10 arte

hirukide

10 urte
bizitza zabalduz

Tolosa

943 673 948
www.hirukide.org
hirukide@hirukide.org

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Fleming Ikastetxea.
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arotzainan (6-12 urte)
Tel.: 943-69 14 13 - 012277aa@hezkuntza.net
flemingvillabona.blogspot.com

HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA
7:30etatik 9:00ora

Erniobea B.H.I.
Villabona
Erniobea Ikastetxea.
Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza Arotzainan (12-16 urte)
Tel.-faxea: 943 69 37 33
012932aa@hezkuntza.net
www.erniobea.eu

GOIKOETXEA
sagardotegia

Sagardo Naturala

Gaur txotx irekiera
Elbarrena Kalea, Arotzegi baserria, 9
20490 - Lizartza • Tel.: 609 71 42 03

Odriozolaren egoera gogoan, gaurko elkarretaratzeetan

Hileko azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dituzte gaur; Pello Odriozolak ia 25 urte daramatza espetxean

Imanol Garcia Landa

Hileko azken ostiralean egin ohi den moduan, gaur ere euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz elkarretaratzeak egingo dituzte bi eskualdeetako hainbat herritan, Herrira ekimenak deituta. Gaurkoan, bereziki Tolosan, Pello Odriozolaren egoera izango dute gogoan. Izan ere, astelehenean, hilak 28, Odriozolak 25 urte beteko ditu espetxean.

Herrira ekimenak azaldu duenez, «duela bost urte legez kalean egon beharko luke, baina Parot Doktrina aplikatuz kondena hamar urte gehiago luzatu zioten». Zehazki, 2008ko uztailearen 2tik aske egon beharko lukeela azaldu du presoek eskubideen aldeko ekimenak. Odriozola «bahiturik» dagoela esan du Herrira-k, «Espainiako Gobernuaren arabera aske egon beharko lukeelako. Gure esku, herriaren esku, alegia, dago Pelloren askatasuna lortzea».

Hori dela eta, Herrira-k Tolosako Trianguloa plazatik astelehenean, hilak 28, 19:30ean hasiko den manifestazioan parte hartzeko deia egin du, «Pello Odriozolak eskubide guztiekin etxean behar duela». Herritarren parte hartze zabala eskatu du presoek eskubideen aldeko mugimenduak, «denon artean» lortuko dela esanez.

Hileko azken ostiral guztietan egingen moduan, gaurkoan ere,

↓ Azken ostirala

GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Altzo.** 20:00etan.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Berastegi.** 19:30ean, plazan.
- **Bidegoian.** 19:00etan Bidaniko frontoi aurreko plazan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 19:30ean, plazan
- **Ikaztegieta.** 20:30etan.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Txarama.** 20:15ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

hainbat eskaera egiteko elkartuko dira. Batetik, kondena bete duten preso guztien «berehalako kaleratzea» eskatuko dute, eta «Estrasburgoko sententziak 197/2006 doktrinari buruz ebatzitakoari jarraiki». Bestetik, «euskal preso politikoentzat bizi osorako zigorra dakarren 197/2006 doktrina etetea».

Frantziako espetxeetan dauden presoentzat «baldintzapeko askatasunari atea zabaltzea» ere eskatuko dute. Kartzela politika «eskubide irizpideetara eta konponbidea sustatzeko gakoetara» aldatzea da egingo duten beste eskaera. Elkarretaratzeak Tolosaldeko eta Leitzaldeko hermeretzi herritan egingo dituzte.



Pello Odriozolaren askatasunaren aldeko manifestaziora deitu dute. HITZA

Aurrezteko plan erraza

Aurrezteko plan bat izatea da.

Aurrezteko plan erraza: Erabiltzaile bakoari esku dabilen kontu. Eragileak gailu automatikoan bidez egin behar dira.

Urtero 3 hilabetetan

%3*

ITN3

jasoko duzu batez besteko saldoa handitzeko.

Lehenengo urteko UTB: %1,03.

*Eragile bakoari Plan Errazean erabiltzen diren ITN3 kontuak 2013ko urtarrilaren 1etik 2014ko urtarrilaren 31era bitartean erabilgarriak izango dira. Erabiltzaile bakoari esku dabilen kontu baten erabilgarritasunaren erabakia erabiltzailearen esku dago. Erabiltzaile bakoari esku dabilen kontu baten erabilgarritasunaren erabakia erabiltzailearen esku dago. Erabiltzaile bakoari esku dabilen kontu baten erabilgarritasunaren erabakia erabiltzailearen esku dago.

Agenda

MUSIKA

■ **Tolosa.** Jabier Muguruzaren kontzertua. Gaur, 20:30ean, Topic zentroan.
 ■ **Tolosa.** Bonberenea Txaranga-ren kontzertua eta DVD aurkezpena: *Etxean zuzenean*. Gaur, 21:00etan, Bonberenean.
 ■ **Tolosa.** Tolosa Kantari 12:00etan Tonto Kalen.
 ■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, bihar, Amaroako auzo lokaletan, 19:00etan hasita.
 ■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua. Igandean, 11:30etan, Iurreamendi egoitzan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

■ **Tolosa.** *Los Miserabel* filma eskainiko dute, gaur, Leidoreen, 22:30ean. Bihar, *The Master* izango da, 19:30ean eta 22:30ean; azken hau jatorrizko bertsioan eskainiko dute, azpitituluekin.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Nerea Ugarte. 17:00etatik 20:00etara, Aranburu jauregian.
 ■ **Tolosa.** Tolosa CFren urteko batzarra eta hauteskunde prozeduraren hasiera. Gaur, 19:00etan, Kultur etxean.
 ■ **Tolosa.** Arpegi taldearen, *Arpegi is different* erakusketa dago ikusgai, Topic zentroan.

KIROLA

■ **Anoeta.** Ibilaldi nordikoko ikastaroa. Bihar, 10:00etan, Kirolegian.
 ■ **Ibarra-Zizurkil.** Urrezko Aizkolarien Binakako XIII. Eusko

Label txapelketan, finalerdiak jokatuko dituzte, igandean, Zestoako Iraeta auzoan. Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Unai Otaño ibartarrak osatutako bikoteak, 17:00etan ekingo dio saioari, Atutxa II-Mugertza II bikotearen aurka.
 ■ **Tolosa-Bidegoian.** Pilota. Kluben arteko Euskadiko txapelketan, Aurrera Saiatz taldeko pilotariak partidak jokatuko dituzte. Gaur Bidegoianen ariko dira, 19:00etatik aurrera, eta bihar, berriz, Beotibarren, 10:00etatik aurrera.
 ■ **Asteasu.** Sagain mendi taldeak irteera antolatuko du, biharko. Euskal Herriko kostaldeko hirugarren etapa egingo dute, Hondarribian hasi eta Pasaiara joanez. 08:00etan hitzordua jarri dute Asteasuko plazan, eta 08:10ean Amasa-Villabonako kiroldegia aurrean. Arratsaldean itzuliko dira.

INAUTERIAK

■ **Tolosa.** Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Tolosako Dulzaineroekin batera aterako da, bihar, 11:00etan, Gernikako Arbolatik. 11:30ean, Kalera txaranga berriarekin bat egingo dute Errementari kalean. Iluntzean, 19:00etatik 21:00etara ere kalejira egingo dute.
 ■ **Leitza.** Bihar, 14:00etan, bazkaria Aurreran; 16:00etan, auzo eskea. Igandean, 12:00etan industrialdetik gurdiak aterako dira, eta plazatik Incansables txaranga; 12:00-14:00: Txu-txu trenaren herrian barrena; 14:30ean bazkaria eskolan, Incansables txarangaekin; 16:00-18:00: Txu-txu trenaren herrian barrena.

19:00etan bertso saioa zinean; 19:00-23:00: Orkesta gizona plazan. Astelehenean, urtarrilaren 28an, 09:00etan, auzo eskea Gorritaran, Arkiskil, Erreka eta Sakulun; 17:00etan umeen kalejira, eta ondoren txokolate jatea; 19:00-23:00: Orkesta gizona plazan.

BESTELAKOAK

■ **Anoeta.** Dantza sokako entsegu orokorra egingo dute, gaur, 19:00etan. Dantza-soka otsailaren 2an izango da, inauteri aurreko larunbatean, urteroko moduan. DBHko 2. mailatik gorako guztiak parte har dezakete, eta zerrendak Itzulin daude, igandera bitarte.
 ■ **Berastegi.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, gaur, 21:30ean, Urepel elkartearen.
 ■ **Ibarra.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, bihar, 16:30ean, Subegi elkartearen.
 ■ **Tolosa.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, bihar, 17:00etan, Oargi elkartearen.
 ■ **Tolosa.** Jubilatua eta pentsiodunen Harizpe elkartearen urteko batzar orokorra, egoitzako areto nagusian, bihar. Lehen deialdia 17:30ean izango da, eta bigarrena, berriz, 18:00etan.
 ■ **Amezketeta.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, igandean, 15:30ean, Ugarterko elkartearen.
 ■ **Tolosa.** Pello Odriozolaren eskatasuna eskatzeko manifestazioa, Herrira-k antolatuta. Astelehenean, 19:30ean, Trianguloa plazan.

■ **Berastegi.** Inauterietako afarian izena emateko epea zabalik dago, hilaren 28a bitarte. Helduak 18 euro ordaindu beharko dute, eta 18 urtetik beherakoek beren afaria emateko aukera izango dute. Hala ere, guztiak eman behar dute izena. Txartelak, Urepele elkartearen, Zelai tabernan edo udaletxean daude.
 ■ **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkarrean kanpainarekin egin dute bat. Elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu. Produktuak udaletxean utzi behar dira.
 ■ **Ibarra.** Langostino Moto kulturel elkarteak irteera antolatuko du, hilaren 27rako. Ibaratik

abiatu eta Tolosa, Urnieta, Astigarraga, Oiartzun zeharkatuko dituzte bertan hamaiketako egiteko. Bueltan Ibarra itzuliko dira. Parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute 675 71 25 05 telefono zenbakira deituta.
 ■ **Alegia.** Sahara bidaltzeko produktu bilketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.
 ■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegiaren hilaren 28tik otsailaren 6ra bitartean matrikulatzeko aukera egongo da. 09:00etatik 13:00etara izango da aukera, eta informazio gehiagorako 943 65 10 06 edo 943652343 telefonoetara dei daiteke.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Eguneko eta gaueko zerbitzua: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
 ■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Eguneko eta gaueko zerbitzua: Bronte, C. Korreo Kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
 ■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Eguneko eta gaueko zerbitzua: Etxebeste, J.M.

Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
 ■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Eguneko zerbitzua: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
 Gaueko zerbitzua: Etxebeste, J.M. Gernikako arbolaren lorategia, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
 ■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZA egunkariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

harpidedun izateak badu saria saridunak

1 Zabala Sagardotegia
Bi laguntzako bazkari edo afaria

M^o Jesus Orrigain Ezeiza (Anoeta)

Garagartza baserria Aduna
Tel: 943 69 0774
Eskara egiteko, 2 hilabete: www.zabala.com



2 Isastegi Sagardotegia
Bi laguntzako bazkari edo afaria

Xabier Estarbe Unanue (Tolosa)

Aldaba Txiki, 15 Tolosa
Tel: 943 65 29 64
Eskara egiteko, 2 hilabete: www.isastegi.com



3 Sarasola Sagardotegia
Bi laguntzako bazkaria

Erramun Zabala Jauregiailto (Aitzo)

Eskara egiteko, 2 hilabete: Asteasu
Tel: 943 69 02 83



4 Donostiako Aquariuma
Bi laguntzako bina sarrera

Idoia Olaetxea Amonarritz (Tolosa)
Igor Azpiroz Colmenero (Tolosa)

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan 2 hilabetez

www.aquarium.es



TXOKOAK hitza

Bihar hasiko dira Lizartzako inauteriak, dantza eta antzerkia oinarri hartuta

Eguerdian dantza, musika eta antzerki emanaldia izango da; hurrengo asteburuan jarraituko dute festek

Iñigo Terradillos Lizartza

Leitzakoekin batera, Tolosaldeko eta Leitzaldeko inauteri goiztiarrenak Lizartzakoak dira. Bihar hasiko dira gibela dastatuz, eta hurrengo asteburuan emango zaie jarraipena, Ihaute dantzak, eskea, mozorroak eta bazkaria izango direlarik osagai nagusiak.

Otsolar dantza taldeak izaten du urtero, 1994. urtean berreskuratu zituztenetik, inauteriak antolatzeko ardura. Eta ez da harritzekoa dantza talde batek Lizartzako inauterien ardura izatea, dantzek pisu berezia baitute jai hauetan. Belaunaldiz belaunaldi mantendu diren bederatzidantzez osaturiko sorta dute.

Hauek sustatu eta jarraipena izan dezaten lan handia egin zuen hil berria den Iñaki Zubeldiak. Inauterien berreskuratze lanetan giltza izan zen, eta Otsolar dantza taldeko lehendakaria eta ohorezko kapitaina zen. Dantza taldeko Malentxo Arrospidek azaldu duenez, «hutsune handia utzi du, eta bere falta bereziki nabaritu dugu jaien antolakuntzan». Zubeldia bere gurasoengandik ikasitako dantzak azken unera arte ondorengoei erakusten saiatu zela nabarmendu du Arrospidek: «Dantzak asko maite zituen, eta ez zuen ulertzen dantzari gabeko inauteririk». Zubeldiak Lizartzako inauterietan eta dantzez zuen jakituria herritarren esku geratuko da, zekien guztia idatzi egin baitzuen.

Bada, Iñaki Zubeldiak eginda-ko lana eskertu nahi izan du Otsolar

lar dantza taldeak, eta aurtengo inauterietan bere omenez ekitaldi xume bat egingo dute. Azken egunean izango da, otsailaren 3an, Lizartzako Ihaute dantzak eskainiko diren unean.

Giroa mantentzea

Kolpe handia izan da bai dantza taldearentzat bai eta herriarentzat ere Iñaki Zubeldiaren heriotza. Arrazoi horregatik batetik, eta krisiarengatik bestetik, aurtengo jaietan «giroa mantentzea» dute helburu, «horrelako gertaerak festa giroa sortzen laguntzen ez duten arren». Bestalde, Otsolar dantza taldeko kideak inauteriak horretarako jaiak direla gogoratzen du: «Gure aurrekoen krisia Garizumak sortzen

Iñaki Zubeldiak egin zuen lana eskertzeko omenaldia egingo diote otsailaren 3an

Zaldunitako bazkaria animatu dute jendea «zaindu eta mantendu beharrekoa baita»

zuen eta horri aurre egiteko nola lasaitzeko, barrena hustutze bat izaten ziren inauteriak, eta gaur egun ere, gure arazoetatik atera eta aire berri bat hartzeko izan ohi dira».

Horretara bultzatu eta laguntzen duten ekitaldi asko daude aurtengo egitarauan. Guztietan biharko emanaldia nabarmendu du Arrospidek: «Egun eta ekitaldi guztiak gustatu arren, antzerki, dantza eta musika ikuskizuna nabarmendu eta ikusi beharrekoa da, inauterien aurrerapen moduko izaten baita, giroa sortzen hasteko oso egokia». 70 lagun inoruk hartzen dute parte, eta ga-

rai bateko inauteriak irudikatzen ditu: «Antzina txekorra hiltzen zuten, eta horrela inauteri guztietarako jakia izaten zuten». Txekorrarekin izandako pasadizoa antzetzten dute, eta zuzeneko musika eta dantza taldearen emanaldia izaten da.

Antolatzaileek azpimarratu duten beste ekitaldia datorren larumbatean, otsailaren 2an izango den baserriz baserriko txantxo puska biltzea da. «Alaitasuna eta umorea izaten da nagusi, eta kalean ere giro polita sortzen da, mozorro eta gurdiekin», dio Malentxo Arrospidek.

Bazkarirako gonbita

Inauterietako nabarmendu beharreko beste ekitaldia, antolatzaileen esanetan, igandean edo Zaldunitan egiten duten bazkaria da. Urtean zehar herritar gehien biltzen duen ekitaldia izaten da, 300 lagun inguru elkartzten direlarik mahaiaren bueltan. Ohiturari jarraituz, txekorra eta garbantzuak jaten dituzte, txarangaren doinuak lagun dituztelarik, eta bazkalostean jokoak izaten dituzte. «Zaindu eta mantendu beharreko ekitaldia da, eta horregatik, herritar guztiak animatzen ditugu bertan parte hartzera», adierazi dute antolatzaileek. Bertarako txartelak 20 euroan eskura ditzakete helduek, eta haurrek, berriz, 12 euroan, eta urtarrilaren 31 izango da horretarako azken eguna.

Bestalde, sariak ere banatuko dituzte inauterietan. 17 urtetik beherakoei eta gorakoei sariak emango dizkiete mozorro originaletan kasuan. Urtarrilaren 31 baino lehen izena eman beharko da lehiaketan parte hartzeko. Era berean, balkoiak ederren apaintzen dituen herritarrek ere saria jasoko du, beraz, herritar guztiak animatu dituzte herria kolorez eta mozorroz alaitzera.



Pasa den urtean egin zuten antzerkiaren une bat. I.T.

↓ Egitaraua

URTARRILAK 26, LARUNBATA

■ **12:00.** Inauterietan hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan direla. Ondoren, antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia.

OTSAILAK 1, OSTIRALA

■ **14:15.** Eskolak antolatuta, mozorro festa.

■ **Ondoren.** Kalejira.

OTSAILAK 2, LARUNBATA

■ **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. Diana abestuz hasiko dituzte inauteriak.

■ **07:30.** Puska biltzea, dantzarietara eta txantxoekin, Ospeletik abiatuta.

■ **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

■ **12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangaren artean Errota ataritik.

■ **13:30.** Inauterietako partaide guztiak kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, guztiak elkarrekin bazkalduko dute herriko frontoian.

■ **18:00.** Gurdiak eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan biltzeko dira kalejiran plazara jaisteko. Bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileek egindako taloak jateko aukera izango da.

OTSAILAK 3, IGANDEA

■ **11:00.** Agintari eta dantzariak Meza Nagusira joango dira, txistulariek eskainitako Agintari doinuaz lagundurik. Ondoren, hamaiketako plazan.

■ **12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdia, mozorro eta gainerakoekin batera.

■ **13:00.** Lizartzako Ihaute Dantzak plazan eta Iñaki Zubeldiari omenaldia.

■ **14:00.** Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren, txaranga, jokoak, zozketa...

■ **20:30.** Plazan *jiittoa* errez inauterien amaiera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



14°
8°

| | |
|-------------|----------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATSALDEA | LAINOTUA |
| BEROENA | 14° |
| HOTZENA | 8° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**
HEDABIDEAK



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna
da gehiegikeriak
pairatzen dituen**

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**